

FUNTSEZKO JARDUERAK

- Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

- Gure enpresak makinak beharko ditu berrerabilitako materialak (itsasoko plastikoak) moldatzeko eta horrela, gure produktua sortzeko. Era berean, hainbat teknologia beharko ditugu gure web orria sortzeko, eta, horrela, bezeroek gure produktuak erosi eta ikusi ahal izango dituzte. Gainera, pertsonak beharko ditugu proiektu hau gauzatzeko laguntzeko (langileak), batzuk materialen bila joateko, beste batzuk produktua sortzeko eta gure produktuak banatzen dituen jendea beharko dugu. Azkenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, dirua beharko dugu proiektu honetan inbertitzeko eta aurrera eramateko. Hauek dira gure enpresaren baliabideetako batzuk, gure erakundearen produktibitatea aktiboki mantentzen duten jarduera bakoitza egiteko behar diren baliabideak ematen dituztenak.

